



TURISMO, MERKATARITZA ETA
KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 30ekoa, Merkataritza zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza-ekintzailtza sustatzeko 2019ko ekitaldirako laguntzak ematen dituen.

RESOLUCIÓN, de 30 de diciembre de 2019, del Director de Comercio, por la que se conceden las ayudas destinadas a incentivar el emprendimiento comercial en la Comunidad Autónoma de Euskadi, para el ejercicio 2019.

Aztertu dira Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko urriaren 8ko Aginduan zehaztutako laguntzak jasotzeko eskatzaileek aurkeztutako eskabideak eta gainerako dokumentazio osagarria. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza-ekintzailtza sustatzeko laguntzen programa arautzen eta deitzen da 2019ko ekitaldirako.

Vistas las solicitudes y demás documentación complementaria, presentadas por las/los solicitantes, al objeto de acogerse a las ayudas contempladas en la Orden de 8 de octubre de 2019, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo por la que se regula y convoca, para el ejercicio 2019, el programa de ayudas destinadas a incentivar el emprendimiento comercial en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko urriaren 8ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza-ekintzailtza sustatzeko laguntzen programa arautu eta horretarako deialdia egin zen, 2019ko ekitaldirako.

Bigarrena.- Interesdunek eskabideak eta gainerako agiriak aurkeztu dituzte, aipatutako agindu arautzailean xedatutakoaren arabera.

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.- La Orden de 8 de octubre de 2019, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo regula y convoca, para el ejercicio 2019, el programa de ayudas destinadas a incentivar el emprendimiento comercial en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Segundo.- Las/los interesadas/os han presentado sus solicitudes, y demás documentación, conforme a lo dispuesto en la citada orden reguladora.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritzako zuzendariak du ebazpen hau emateko eskumena, agindu arautzailearen 8.1 oinarrian xedatutakoarekin bat etorriz.

Bigarrena.- Programa honetako laguntzak ematea agindu arautzailearen 3., 7. eta 8. oinarrietan ezarritako prozeduraren bidez ebatzi da.

Hirugarrena.- Laguntzak kalkulatzeko, agindu arautzailearen 7., 9., 19., 20., 22., 30., 31. eta 33. oinarrietan ezarritako baldintzak eta irizpideak bete dira.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- Es competente para dictar la presente resolución el Director de Comercio del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, de conformidad a lo dispuesto en el la base 8.1 de la orden reguladora.

Segundo.- La concesión de ayudas del presente programa se resuelve por el procedimiento establecido en las bases 3, 7 y 8 de la orden reguladora.

Tercero.- Para el cálculo de las ayudas se han observado las condiciones y criterios establecidos en las bases 7, 9, 19, 20, 22, 30, 31, 33 de la orden reguladora.



TURISMO, MERKATARITZA ETA
KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Laugarrena.- Antolamendu, Sustapen eta Lehiakortasuneko arduradunak, agindu arautzailearen 7.2 oinarrian xedatutakoaren arabera, diruz lagundu daitezkeen jardueretarako eskatutako laguntzak emateko proposamenak egin ditu, horien zenbatekoa adierazita, bai eta diruz lagundu ezin diren jardueretarako eskatutako laguntzak ukatzekoak ere.

Bosgarrena.- Laguntzen zenbateko osoa, Udalen lerroko eskabideak baloratu ondoren, 672.476,21 €-koa da; hau da, deialdian jasotakoa (900.000) baino txikiagoa, eta ekintzaileen lerrokoa, berriz, 1.600.396,11 €-koa, hau ere deialdian jasotakoa (1.800.000) baino txikiagoa. Ondorioz, Aginduaren 7.3, 22.2 eta 33.2 oinarrietan xedatutakoa aplikatuz, ez da beharrezkoa izan 22.1 eta 33.1 oinarrietan zerrendatutako baremazio-irizpideen balorazioa egitea.

Aztertu dira aurkeztutako eskabideak eta gainerako dokumentazioa, ebaluatutako txostenak, Antolamendu, Sustapen eta Lehiakortasuneko arduradunak emandako proposamena eta aplikazio orokorreko eta bereziko gainerako xedapenak, eta hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Merkataritza-ekintzailtza sustatzeko jarduerak gauzatzeko eta merkataritza-establezimendu berriak irekitzeko laguntzak ematea ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei, horietako bakoitzari dagokion zenbatekoa adierazita.

Bigarrena.- Emandako laguntzaren% 70ari dagokion lehen ordainketa egitea udalei, agindu arautzailearen 23. oinarrian jasotakoaren arabera, araudi horretan jasotako baldintzak bete ondoren.

Behin betiko likidazioa aginduaren 24. eta 25. oinarrietan jasotako betebeharrak bete ondoren egingo da.

Cuarto.- El/la responsable de Ordenación, Promoción y Competitividad, conforme a lo dispuesto en la base 7.2 de la orden reguladora, ha realizado las propuestas de concesión de las ayudas solicitadas para las actuaciones subvencionables, con indicación de la cuantía de las mismas, y de denegación de las ayudas solicitadas para actuaciones no subvencionables.

Quinto.- El importe total de las ayudas tras la valoración de las solicitudes en la Línea Ayuntamientos asciende a 672.476,21 €, importe inferior al consignado en la convocatoria (900.000), y en la Línea Emprendedores asciende a 1.600.396,11 €, también inferior al consignado en la convocatoria (1.800.000). Consecuentemente, en aplicación de lo dispuesto en las bases 7.3, 22.2 y 33.2 de la Orden, no ha sido necesario realizar la valoración de los criterios de baremación relacionados en las bases 22.1 y 33.1.

Vistas las solicitudes y demás documentación presentada, los informes evaluados, la propuesta dictada por el/la responsable de Ordenación, Promoción y Competitividad, y de conformidad con los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y especial aplicación.

RESUELVO:

Primero.- Conceder las ayudas destinadas a la ejecución de actuaciones de fomento del emprendimiento comercial y a la apertura de nuevos establecimientos comerciales a los/las solicitantes relacionados en el ANEXO I de la presente Resolución, indicando el importe correspondiente a cada uno de ellos.

Segundo.- Abonar un primer pago correspondiente al 70% de la ayuda concedida, a los/las beneficiarios/as de la Línea Ayuntamientos, según se recoge en la base 23 de la orden reguladora, una vez cumplidos los requisitos que figuran en dicha normativa.

La liquidación definitiva se realizará una vez cumplidas las obligaciones recogidas en las bases 24 y 25 de la orden.



TURISMO, MERKATARITZA ETA
KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Hirugarrena.- Ekintzaileen lerroko onuradunei emandako laguntzaren% 100 ordaintzea, agindu arautzailearen 34. oinarrian jasotakoaren arabera, araudi horretan jasotako baldintzak bete ondoren.

Laugarrena.- II. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei laguntzak ukatzea, bertan adierazitako arrazoiak direla eta.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioko Turismo eta Merkataritzako sailburuordeari, hilabeteko epean. Jakinarazpen elektronikoa Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.2 artikuluan ezarritakoaren arabera egin dela ulertuko da.

Tercero.- Abonar el 100% de la ayuda concedida, a los beneficiarios de la Línea Emprendedores, según se recoge en la base 34 de la orden reguladora, una vez cumplidos los requisitos que figuran en dicha normativa.

Cuarto.- Denegar las ayudas a las/los solicitantes que se relacionan en el ANEXO II por los motivos que se indican.

Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse Recurso de Alzada ante la Viceconsejera de Turismo y Comercio en el plazo de un mes, entendiéndose practicada la notificación electrónica en los términos indicados en el artículo 43.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo de las Administraciones Públicas.

Izta.Fdo. Juan Emilio Andrades García
MERKATARITZA ZUZENDARIA / DIRECTOR DE COMERCIO